

“KLASK” KOMIKI GAZTEAREN LEHIAKETA 2025

OINARRIAK

1. Xedea

Nafarroako Gazteriaren Institutuak “Klask” komiki gaztearen lehiaketaren deialdia egin du, gazteen sormenaren bidez hausnarketa kritikoa sustatzeko eta berdintasun eta errespetu jarrerak bultzatzeko, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baten oinarri gisa.

Saritutako lanak Nafarroako Gazteriaren Institutuaren jabetzakoak izanen dira, eta fanzine bat egingen da, formatu digitalean eta paperean, baita erakusketa bat ere.

2. Nork hartzen ahal du parte?

14 eta 22 urte bitarteko gazteek (2003tik 2011ra bitartean jaiotakoak, biak barne), baldin eta Nafarroan jaio edo bizi badira eta gazte txartelaren titularrak badira.

3. Partaidetza motak

Bi modalitate egonen dira: a) **fasekako modalitatea**, eta b) **modalitate osoa**.

Parte-hartzaileek modalitate batean edo bietan hartzen ahalko dute parte, proposamen bat edo gehiago aurkeztuta.

- a) **FASEKAKO MODALITATEA.** Parte-hartzaileek komiki baten gidioa aurkezten ahalko dute, edo aurkeztutako gidoi horiei dagokien atal grafikoa.

Lehen fasean 14 gidoi hautatuko dira gehienez. Gidoi horiek argitaratu egingen dira, eta bigarren fasean, horietarako proposamen grafikoak aurkeztuko dira.

Beraz, komiki bakoitza bi pertsonaren artean prestatuko da, baina bakoitza bere aldetik arituko da; izan ere, batak gidioa prestatuko du, eta besteak, berriz, atal grafikoa.

Parte-hartzaileak faseetako batean edo bietan aurkezten ahalko dira, proposamen bat edo gehiago aurkeztuta.

Aurkezteko epeak.

Gidoiak (lehen fasea): 2025eko ekainaren 23tik abuztuaren 29ra. Hautatutako gidoiak argitaratuko dira irailaren 8an, baita egileen izena ere, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren webgunean.

Gidoietarako proposamen grafikoak (bigarren fasea): 2025eko irailaren 8tik urriaren 10era.

- b) **MODALITATE OSOA.** Komiki osoa aurkeztuko da, hau da, gidioa eta atal grafikoa. 6 komiki hautatuko dira gehienez.

Irailaren 8an argitaratuko da hautatutako komikien egileen izena Nafarroako Gazteriaren Institutuaren webgunean.

4. Lanen ezaugarriak

Komiki bakoitzak DIN A4 formatuko bi orrialde izanen ditu, bertikalean beteak. Komikiak gaztelaniaz edo euskaraz aurkezten ahalko dira. Ez da onartuko adimen artifizialaren bidez sortutako proposamenik.

a) FASEKAKO MODALITATEA

Lehen fasea: gidioen aurkezpena. PDF formatuan edo paperean aurkeztuko dira, eta barnean hartuko dituzte istorioaren laburpena eta binetetako gidoia, pertsonaien elkarrizketak jasotzen dituena. Parte-hartzaileek kontuan hartu beharko dute komikiaren luzera DIN A4 formatuko bi orrialdekoa dela, irudiak barne. Mezu nagusiak lotuta egon beharko du lehiaketaren gaiekin.

Bigarren fasea: irudiak. Lehen fasean hautatutako gidioletako baten baterako proposamen grafikoa aurkeztu beharko da.

Lanak paperean edo PDF edo JPEG formatuan aurkeztu beharko dira (formatu digitalean sortuta edo eskuz, edozein teknikaren bidez, egindako marrazkiak eskaneatuta), ahal dela 300 ppp-ko ebazpena erabilita.

Proposamen grafikoetan jatorrizko testuaren egokitzapen txiki batzuk egiten ahalko dira, baldin eta testuaren zentzuari eusten bazaio.

b) MODALITATE OSOA

Lanak paperean edo PDF edo JPEG formatuan aurkeztu beharko dira (formatu digitalean sortuta edo eskuz, edozein teknikaren bidez, egindako marrazkiak eskaneatuta), ahal dela 300 ppp-ko ebazpena erabilita. Mezu nagusiak lotuta egon beharko du lehiaketaren gaiekin.

5. Lehiaketaren gaiak

Lehiaketaren gaiak askotarikoak izaten ahal dira, baina beti sustatu beharko dituzte berdintasun eta errespetu balioak gizon eta emakume gazteen arteko afektibitate eta sexu harremanen eremuan.

Besteak beste, gai hauek jorratzen ahalko dira: maitasun erromantikoaren mitoak; harremanetako alerta seinaleak, adibidez, jelsia, isolamendua, kontrola edo xantaia emozionala; genero arloko ziberindarkeriak eta horien aurreko erantzuna; pornografiaren kontsumoa eta horrek harremanetan duen eragina; sexu hertsadurako egoeren identifikazioa; adostasun librea

edo faltsua; harremanetako botere dinamikak; afektibitate eta sexu harremanetako erantzunkidetasuna eta abar.

6. Sariak

Urriaren 27an emanen dira aditzera irabazleen izenak. Sari banaketa, berriz, 2025eko azaroan izanen da.

Fasekako modalitatea:

- 100 €-ko txartela, liburuak erostekoa, gehienez hautatutako 14 gidaien egileendako. Txartelak Nafarroako Gazteriaren Institutuak zehaztu bezala kudeatuko dira.
- 100 €-ko txartela, liburuak erostekoa, hautatutako lan grafikoen egileendako. Txartelak Nafarroako Gazteriaren Institutuak zehaztu bezala kudeatuko dira.

Modalitate osoa:

- 150 €-ko txartela, liburuak erostekoa, gehienez hautatutako 6 komikien egileendako. Txartelak Nafarroako Gazteriaren Institutuak zehaztu bezala kudeatuko dira.

Lan irabazleak fanzine batean argitaratuko dira, formatu digitalean nahiz paperean, eta testuaren eta irudiaren egileak nor diren adieraziko da. Horrez gain, komiki irabazleen erakusketa antolatuko da Nafarroako Komikiaren 2026ko Azokan eta Nafarroako beste gune batzuetan, adibidez gaztetxeetan eta kultur etxeetan.

7. Epaimahaia

Epaimahaiak gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izanen du. Hona hemen epaimahaikideak:

- Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileen artean hautatutako bi kide.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak hautatutako kide bat.
- Komikia sustatzeko Tiza elkarteak hautatutako kide bat.

Lanak hautatzeko orduan, epaimahaiak kontuan hartuko ditu irizpide hauek: berdintasun eta errespetu balioak gizon eta emakume gazteen arteko afektibitate eta sexu harremanen eremuan; Nafarroako gazteen aniztasunaren agerpena, hizkuntzei, kulturei, desgaitasunei eta abarri dagokienez; kalitate teknikoa, eta gizonen eta emakumeen egindako obren kopuru orekatua.

8. Inskripzioak eta dokumentazioa

Modalitate osoko eta fasekako modalitateko 1. faseko (gidoiak) lanak aurkezteko epea 2025eko ekainaren 23tik abuztuaren 29ra bitartekoa izanen da (azken egun hori barne).

Fasekako modalitateko 2. faseko (1. fasean hautatutako testuatarako proposamen grafikoak) lanak aurkezteko epea 2025eko irailaren 8tik urriaren 10era bitartekoa izanen da (azken egun hori barne).

Izena emateko orria Nafarroako Gobernuaren eredu ofizialaren arabera izanen da eta honako leku hauetan aurkezteko ahalko da: Nafarroako Gobernuaren [Erregistro Orokor Elektronikoan](#) (CI@ve sistema edo ziurtagiri digitala erabilita), Nafarroako Gazteriaren Institutuko Erregistroan (Yanguas y Miranda 27, 31003 Iruña), Nafarroako Gobernuko edozein erregistro bulegotan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako tokietan.

Eskabideei agiri hauek erantsi behar zaizkie:

- Izena emateko inprimakia, behar bezala beteta (l. eranskina).
- Artistaren NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
- Nafarroan jaio ez diren egoiliarren kasuan, errolda ziurtagiria.
- Eta hauek ere bai: lehen fasean, testua duen dokumentua; bigarren fasean, proposamen grafikoa duen dokumentua; edo, bestela, proposamen osoa.

9. Gorabeherak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak ebatziko ditu, aplikagarria den araudiaren arabera, "KlasK" komiki gaztearen lehiaketa honetan gertatzen diren gorabeherak, bai eta oinarriotan aurreikusita ez dauden aferak ere. Halaber, Nafarroako Gazteriaren Institutuak ahalmena izanen du oinarri hauen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan egoten ahal diren kontuak ebazteko.

Nafarroako Gazteriaren Institutua salbuetsita egonen da parte-hartzaileek egiten ahal duten edozein plagiorengatik edo jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen legediaren edozein urraketarengatik sortzen den edozein erantzukizunetatik.

"KlasK" komiki gaztearen lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

11. Datuen babesa

Datuen babesaren gaineko oinarrizko informazioa

Arduraduna: Nafarroako Gazteriaren Institutua.

Xedea: Programan duen parte hartzea kudeatzea, eta parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztiekiko komunikazioak eta informazio trukeak ahalbidetzea.

Legitimizazioa: Ahal publikoak betetzean edota interes publikoko aferetan egin beharreko tratamendua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

Hartzaileak: Ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, ez bada horretarako baimena eman dutela edo, baimenik eman gabe, araudiak hartarako gaitzen duela.

Eskubideak: Datuetara sartzea, datuok zuzentzea eta ezabatzea eta haien tratamendua mugatzea.

Eskubide horiek erabiltzeko: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/datu-pertsonalak-babesteko-eskubideak-baliatzea?back=true&pageBackId=7567267>

12. Harremanetarako

Nafarroako Gazteriaren Institutua
Yanguas y Miranda kalea 27, behea
encuentros@navarra.es
848427841